

2. Urratsa: ABIAN JARTZEN /ABIATZEN

HIZKUNTZA ERABILTZEN HASI LAGUNDUTAKO TESTUINGURUETAN

IKASLEEN EGOERA:

*Gai dira oinarrizko komunikazioa mantentzeko ohiko jardueretan, eta horretarako esaldi motzak, hizkuntza-zatiak era hitz solteak erabiltzen dituzte.

* Ohiko esaldiak ulertzen dituzte.

*Egitura sinpleak erabiltzen dituzte.

*Hizkuntza berriarekin ausartzen dira: lehen esaldiak sortzen dituzte, aditza jokatzen hasten dira.

*Harremanetarako hizkuntzan eroso sentitzen hasten dira.

*Hizkuntza berriari buruzko galderak egiten hasten dira. (nola da....?, zergatik esaten da horrela?)

IKASLEEKIN LORTU NAHI DUGU:

- Harremanetarako hizkuntza ulertzea: gelako jarduera arrunteko hizkuntza ulertzea.
- Euskara naturaltasunez erabiltzen hastea., gela arruntean eta laguntza-gelan.
- Gela arrunteko jardueretan parte hartzen hastea.
- Arloetako hiztegia erabiltzen hastea.

1. multzoa: Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta solasean aritzea¹

1.A: ENTZUTEA

HELBURUA: Testuinguruak lagunduta, oinarrizko informazioa ulertzea gelako testuinguruan.

Edukiak

1. Ahozko testuak ulertzeko prozedurak erabiltzea: ulertzen ez duela adieraztea, argibideak eskatzea.
2. Gelako agindu zehatzak ulertzea.
3. Mezuen ideia nagusia antzematea.
4. Gai ezagunei buruzko elkarrizketak jarraitzea.
5. Ikasketa-prozesuko ahozko testuak ulertzea begi bidezko laguntzarekin:
 - Deskribapenak
 - Esperientzien eta bizipenen kontaketa
 - Bizikidetzara arautzen duten jarraibideak
 - ikasketa-edukiei buruzko solasaldiak
 - lan-antolamenduari buruzko azalpenak
6. Begi bidezko laguntza duten istorio, kanta edo olerkiak ulertzea.
7. Talde handiko azalpen orokorrak jarraitzea oinarrizko kontzeptuak eta hiztegia aurretik landuta.
8. Egoki interpretatzea asko erabiltzen diren aditz-denborak.
9. Ikusten ez diren hiztunen solasaldiak ulertzen hastea (irratia, telefonoa, telebista).

1.B: HITZ EGITEA ETA SOLASEAN ARITZEA

HELBURUA: Hizkuntza erabiltzea oinarrizko komunikaziorako.

Edukiak

1. Ohiko galderei ziurtasunez erantzutea.
2. Komunikazioari eusteko elkarreragineko oinarrizko arauak erabiltzea: entzutea, txanda errespetatzea...
3. Elkarrizketak kontrolatzen dituzten esapideak erabiltzea: *ez dut ulertzen; errepikatu, mesedez; Bai?, zer esan duzu?...*

¹ LOE-n bost eduki-multzo agertzen dira: dokumentu honetan agertzen diren biak eta beste hiru: hizkuntzari buruzko gogoeta, literatur hezkuntza eta hizkuntzaren gizarte-dimentsioa.

Azken hiru multzoetako oinarrizko eduki batzuk aukeratu ditut eta multzo horietan sartu ditut dokumentua erraztu aldera.

4. Norberari buruzko informazioa ematea era sinplean ohiko gertaerei buruzko kontakizunak, gertakizunak.
5. Norberaren sentimenduei buruzko informazioa ematea era sinplean.
6. Oraingo eta etorkizun hurbileko planari buruzko hitz egiten hastea.
7. Esaldi-serieak erabiltzea pertsonak, jarduerak eta prozesuak deskribatzeko.
8. Ikas-mailari dagokion matematika eta ingurunea arloetako oinarrizko hiztegia ezagutzea.
9. Ikasgela barruko ahozko testu laburrak sortzea irakaslearen laguntzarekin: jarraibideak, eguneroko ekintzei buruzkoak...
10. Ikasketa-prozesurako ahozko testuak sortzea, helburu didaktikoa dutenak bai ohiko testuak irakaslearen laguntzarekin: deskribapen sinpleak, galdera zuzenei erantzunak, azalpen sinpleak, egindakoa berriz kontatzea.
11. Galderak erabiltzea informazioa bilatzeko.
12. Lanari buruzko elkarrizketak mantentzea.
13. Ezaugarri hauek dituzten gizarte harremanetako edo ikasketa-prozesuko komunikazio egoeretan parte hartzea eta elkarlanean aritzea: beste solaskide bat ezaguna eta ohikoa, gai zehatzak edo aurretik prestatutakoak eta gertukoak darabiltzatenak.
14. Irakasleak ulertzeko moduan hitz egitea: bolumen egokiarekin eta argi hitz egiten saiatzea.
15. Komunikazio-elkartrukeetan eta ikasketa-prozesu partekatuko egoeretan lankidetzarako jarrera eta errespetua azaltzea.
16. Ikasleen ahoskerari eta intonazioari errespetua erakustea.

2. multzoa: Idatziko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea

HELBURUA: Irakurketa eta idazketa tresna gisa erabiltzea euskara ikasteko eta komunikatzeko.

Edukiak

1. Oinarrizko informazioa ulertzea testuetan irakaslearen laguntzarekin.
2. Informazioa zehatza bilatzea.
3. Idazketa erabiltzea informazioa gogoratzeko.
4. Irudi bidezko hiztegia erabiltzea.
5. Hitz berrien hiztegia egitea.

6. Hizkuntza batean ikasitako hizkuntza-ezagutzak aktibatuz, beste hizkuntza bateko idatzizko testuak hobeto ulertzea.
7. Gelako eta ikastetxeko liburuak erabiltzea informazioa lortzeko.
8. Ozen irakurtzea, tonuera egokia erabiliz.
9. Testuaren antolaketa ezagutzea: lerroaldeak.
10. Testua ulertzeko estrategiak erabiltzea: testuarekin batera doan irudiak, hitz ezezagunen esanahia ondorioztatzea.
11. Eskolan erabili ohi diren testua sortzea informazioa antolatzeko eta komunikatzeko: laburpenak, eskemak, deskribapenak, azalpen sinpleak.

HIZTEGIA

- *Eguneroko beharrekin lotutako hiztegia ulertu eta erabili.*
- *Arloetako hiztegia*

TESTU MOTAK

- Istorio motzak
- Irudi bidezko laguntza duten ipuinak.
- Deskribapenak
- Albisteak
- Antolatzaile grafikoak
- Komikiak
- Postalak
- Iragarkiak
- Irudi bidezko laguntza duten aginduzko testuak
- Errezetak
- Irudi bidezko duten azalpenezko testuak
- Olerkiak